

## Inamaren aurkako salaketa jarri du Udalean SOS Muxikak

Inamak Biosfera Erreserbaren Patronatuko baimenik gabe baso-pista bat zabaldu eta zuhaitzak apurtzea salatu dute

### DANEL LAUZIRIKA

SOS Muxika elkarteak Inama enpresaren aurkako salaketa bat jarri du Muxikako Udalean. Salaketa horren arabera, Inamak Biosfera Erreserbako Patronatuaren baimenik gabe Jauregibarri baserriaren ondoan dagoen baso-pista handitu du.

Baso-pista hori apeak biltzeko erabiltzen du enpresak. Pista zabaltzeko, zuhaitz mota ezberdinak apurtu dituztela adierazi dute SOS Muxikako kide-ek.

Herritarren plataformako bozeramaile baten esanetan, «Patronatuak horren inguruko txosten baikorrik eman gabe zabaldu dute baso-pista. Toki horretan zeuden aritzak, astigarrak, urretxak eta altzak apurtu dituzte».

«Ez dut uste Inamak baso-pista zabaltzeko baimenik zuenik», adierazi du Biosfera Erreserbako Patronatuko teknikari batek.

SOS Muxikakoen arabera, ekainaren 5ean zabaldu zuten baso-pista. «Inork ez ikusteko lekuan makineria astunarekin zabaldu zuten bidea».

### Behin behineko baimena

2002an Biosfera Erreserbaren Patronatuak Jauregibarri baserriaren ondoan apeak bildu ahal izateko, behin behineko baimen bat eman zion Inamari. Baimen horren arabera, Inamak lur horiek 2002ko abuztuan bakarrik erabili zitzaizkeen.

SOS Muxikak egindako presioen ondoren, Inamak apeak Jauregibarri ondoan biltzeari utzi zion iaz. «Urte honen hasieran berriro erabili dute toki hori biltegi bezala; eta orain, gainera, baso-pista zabaldu dute».

«Inamak ez du sinesgarritasunik. Horrelako ekintzek Inamak ingurumenarekiko eta Muxikako bizilagunen osasunarekiko duen errespetu maila erakusten dute», adierazi du SOS Muxikako bozeramaile batek.

© Busturialdeko Hedabideak S.L.  
Tel.: 946187299 Faxe.: 946881193  
E-posta: [busturialdea@busturialdeko-hitza.info](mailto:busturialdea@busturialdeko-hitza.info)  
Zubiaurtar Kepa, 72 Bermeo



Internet Ehuntzen S.L.-k garatutako webgunea